



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/07/24

BERAKO UDALAKA

herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2024KO UZTAILAREN 23ko BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2024-07-23.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Ines R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
Jose Esteban Aguirre Zubietta
Adela Arlegi Goienetxe
Angel Pombar Sainz
HERRIRAKO
Andoni Andueza Intxaurrenondo

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Maria Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
Francisco Larrechea Lazcano
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera bidali zen aurreko bilkurako aktari (2024-06-18). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

2. OIHAN ENKANTEA NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZENBAKIKO MENDI KOMUNALETAN, "USATEGIETA", "OTSANDA", "IRUNSORO" ETA "IBARDIN" PARAJEAK. BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Ikusirik:

- Nafarroako Onura Publikoko Mendiaren Katalogoko 638 eta 639 zenbakietako mendietan lote honen oihan-aprobetxamendua egiteko espedienteak:

* LOTE BAKARRA.



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/07/24

BERA

AKTA 2024-07-23 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 84918

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAVX YDY9 2JYM QCTP

2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/07/24



SINATZAILEA

Berako Udaleko Alkatea
AITOR ELENBURU EGANA
2024/07/24

- Parajeak: Usategieta, Otsanda, Irunso, Ibaridin.
- Espezieak: P. nigra (larizio), p. strobilus (strobilus), l. kaempferi (alartze).
- Ondoak: 2.376.
- Zuraren bolumena: 959,94 m³.
- Egur txiki/egur bolumena: 391,64 m³.
- Bolumena, guztira: 1.351,58 m³.
- Balorazioa, 30.011,34 €.
- Bigarren enkantea (%10eko beherapena): 27.010,21 €.

- Udalak, 2023ko azaroaren 21eko Osoko Bilkuran, erabaki zuela basoko lotearen aprobetxamendua enkante publiko bidez saltzea, gutun-azal itxiko prozeduraren bidez.

- 2024ko apirilaren 26ko Kontratazio Mahaiaren akta, zeinean erabaki baitzen lotea behin-behinean esleitzea Larretxea Egurrak SL enpresari.

- Sesta helbururako jarritako epean ez zela proposamenik aurkeztu.

Kontuan izanik enpresak aurkeztu dituela baldintza administratiboen pleguaren 10. puntuari eskatzen diren agiriak,

aho batez ERABAKI DA:

1. Aipatutako oihan lotea behin betiko esleitzea Larretxea Egurrak SL enpresari, 27.100,00 eurotan, gehi BEZa.

2. Enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea baldintza ekonomiko-administratiboen pleguko 5. eta 11. puntuak ezartzen dituzten betebeharrak konplitu behar dituela: ordainketaren bermea eta ordainketa. Esleipen hau agiri hauen mende dago: Udalak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren Baso eta Ehiza Zerbitzuaren baldintza tekniko partikularrak.

3. Erabaki hau jakinaraztea enpresa adjudikaziodunari eta Baso eta Ehiza Zerbitzuari.

3. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B26/2024 zenbakidunetik B27/2024 zenbakidunera.

- Ebazpenak: 163/2024 zenbakiko ebazpenetik (2024-06-14) 214/2024 zenbakiko ebazpenera arte (2024-07-18).

4. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 19:55ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAVX YDY9 2JYM QCTP

AKTA 2024-07-23 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 84918

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

2tik 2 orrialdea